



BEGOÑA GARMENDIA VAZQUEZ, Tolosako Udaleko idazkariak.

NEUK ZIURTATUA:

Udalbatzak, bi mila eta hogeita lauko urtarrilaren hogeita bostean, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

5. BEHIN BETIKO ONESPENA EMATEA «24. IURRE» ESPARRUKO LASKORAIN IKASTOLAKO XEHETASUN-AZTERLANARI.

Helbidea: Usabal auzoa, 26 zk.
Esparrua: 24 lurre
Eskatzailea: Iñaki Olaetxea Amonarriz
Sarrera data: 2023/06/02 (sarrera zk.: 2023/7866)
Espedientea: 2023H1070001
Erlazionatutako espedientea: 2021H3190030. Ikastolako patioko eremua estaltzeko obrak.
Dokumentazioa : Eskaera orria eta xehetasun azterlana (memoria + planoak)

AURREKARIAK

Dokumentua	Data/Zk.	Oharrak
Xehetasun-Azterlanaren proiektua.	2023/06/02	
Txosten teknikoa (JM22050).	2023/08/25	Aldekoa, ohartaraziz dok. Ur Agentziara bidali behar zela.
Alkatetza Dekretua (2023/1983 zk.). (zuzenketa 2023/2014 zk.).	2023/08/28 2023/08/30	Hasierako onespena.
Jakinarazpena eskatzaileari.	2023/09/01	Hasierako onespena.
- Iragarkia GAO	2023/09/07 (173 zk.)	
- Iragarkia udaletxeko iragarki taulan / web gunean	2023/09/08 - 2023/10/05	
- Tolosaldeko Atarian	2023/09/12	
- Berria egunkarian	2023/09/13	
- Diario Vasco	2023/09/13	
Ur Agentziaren ofizioa	2023/09/15	Ur Konfederazioari igorpena.
Txosten juridikoa informazio aldiari buruzkoa.	2023/11/06	Ez dago alegaziorik.
Idazkariaren ziurtagiria informazio aldiari buruzkoa.	2023/11/08	Ez dago alegaziorik.



Uraren Euskal Agentziaren idatzia, Ur 2023/12/15 Bi txostenak aldekoak.
Agentzia beraren eta Kantauriko
Konfederazio Hidrografikoaren
txostenak igorritz.

ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

I. Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dute:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 73., 74., 85. eta 98. artikulua.
- Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 4., 7., 33. eta 37. artikulua.
- Lurzoruari buruzko Legearen testu bateginaren 11. artikulua, urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.
- Ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Plangintzako Erregelamenduaren 65., 66., 120., 121. eta 140. artikulua.
- Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j), 22.2.c) eta 70.2 artikulua.
- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikulua.

II. Xehetasun azterlana behin-betiko onartzeko jarraitu beharreko prozedura honako hau da:

A. Jendurrean jartzeko aldia amaituta, alegazioak aurkeztuta eta horiei buruzko txosten juridikoak eginda, jendurreko informazioaren emaitza ikusita, Udaltzariak, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.3 artikuluaekin eta Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluaekin bat etorritik, Xehetasun Azterlana behin-betiko onetsiko du, bidezko diren aldaketak eginda.

Xehetasun-azterlana behin-betiko onesteko epea hiru hilabetekoa izango da, hasierako onespentik zenbatzen hasita; epe hori igarotakoan, ezetsizat joko da administrazio-isiltasunez.

B. Xehetasun Azterlana behin-betiko onartu ondoren, interesdunei jakinaraziko zaie, eta behin-betiko onespentaren erabakia Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluaekin bat etorritik.

Era berean, hirigintzaren arloan eskumena duen foru-organoari jakinaraziko zaio, behin betiko onespentaren erabakia hartu eta hamar eguneko epean, ekainaren 23ko 2159/1978 Errege Dekretuak onartutako Lurzoruaren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko Legea garatzeko eta aplikatzeko Plangintzako Erregelamenduaren 140.5 artikuluaekin bat etorritik.

AZTERKETA JURIDIKOA

Aurrekariak ikusirik, espedienteak aplikatu beharreko legerian ezarritako izapidetza jarraitu du eta Uraren Euskal Agentziaren zein Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren aldeko txostenak jasota, behin-betiko onspena Udaltzari dagokio, Lurzoruari eta



Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 98.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.c) artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik.

ONDORIOAK

Aurreko guztia ikusita, eta kontuan izanik udal teknikariek egindako txostenak zein txosten sektorialak eta aplikatu beharreko lege-xedapenak, ondoko irizpen-proposamena egiten zaio Lurralde Batzorde Informatiboari:

Tolosako udaleko Lurraldea Batzordeak, 2024ko urtarrilaren 17an egindako bilkuran, irizpen-proposamen hau aztertu eta bozkatu zuen. Bozketaren emaitza honako hau izan zen:

Aldeko botoak: Ander Figuerido Zubiria, Garbiñe Marzol Ormazabal, Aitzol Garzia Azurmendi, Xarles Iturbe Pasaban, Patxi Amantegi Zubiria eta Jose Mari Villanueva Telleria.

Beraz, hori dena ikusirik, honako irizpen hau onartzea proposatzen zaio Udalbatzaren Osoko Bilkurari:

IRIZPENA

LEHENA.- BEHIN-BETIKO ONESPENA EMATEA “24. lurre” esparruko Laskorain Ikastolako xehetasun-azterlanari (2023eko ekainaren 2an aurkeztutako dokumentuari).

BIGARRENA.- Xehetasun-azterlana Gipuzkoako Foru Aldundiari bidaltzea, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailatu dezan, argitaratu baino lehen.

HIRUGARRENA.- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea behin-betiko onespeneren erabakia, Hirigintza Plangintzako Administrazio Erregistroan gordailatu dela adierazita.

LAUGARRENA.- Erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Udalbatzako bozketaren emaitza honako hau izan da:

Aldeko botoak: Angel Martinez de Rituerto Arregui, Estitxu Kortejarena Ugarte, Goiuri Ezeiza Arandia, Ander Figuerido Zubiria, Josune Sanz Vidal, Aitor Agirresarobe Murgi, Kristina Pelaez Errazkin, Aitzol Garcia Azurmendi, Garbiñe Marzol Ormazabal, Xarles



TOLOSAKO
UDALA

2024IPLE0001

Iturbe Pasaban, Biotza Agirre Ugalde, Leire Zubeldia Rezola, Xabier Balerdi Tolosa, Ainhoa Dominguez Landa, Patxi Amantegi Zubiria, Iker Uson Gonzalez eta Jose M^a Villanueva Telleria.

Beraz, Udaltzakerak, aho batez, onartu du behin betiko onespenera ematea «24. lurre» esparruko Laskorain Ikastolako xehetasun-azterlanari.

Hala jasota gera dadin eta bidezko ondorioak izan ditzan, ziurtagiri hau egiten dut, Antolakuntzako zinegotzi delegatuaren onespenerarekin, Tolosan, sinadura agertzen den datan.

O.e.
**ANTOLAKUNTZAKO
ZINEGOTZI DELEGATUA**

IDAZKARIA



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2024IPLE0001-24_1lurre esparruko Laskorain ikastola/24_1lurre esparruko